

# KONTUAK EMATEKO EUSKAL EREDUA

## *Kontuematea*

### 1. Konpromisoa OGP-Euskadi

---

#### AURRETIKO TESTUINGURUA

Proiektua euskal administrazio publikoen eremuan herritarrei kontuak ematea bultzatzeko asmo irmoaren barruan kokatzen da; hortik Kontuematea izena. Aldi berean, erakunde anitzeko lankidetzaproiektua da, irekia eta herritarren parte-hartzearekin.

Ildo horretan, garrantzitsua da adieraztea, beste herrialde batzuetan bezala, Euskadin administrazio mota desberdinak bizi direla, bakoitza bere eskumen eta erantzukizunen esparruarekin, bai eta horien ezaugarri eta berezitasun indibidualekin ere.

Gainera, proiektu honi ekin arte, ez zegoen irizpide partekaturik gobernu-programetan edo agintaldiko planetan hartutako konpromisoen betetze-mailari buruzko informazioa emateko. Euskal erakunde publiko guztientzako eredurik izateak zaildu egiten zuen herritarrek gai publikoen kudeaketan, jarraipenean eta ebaluazioan parte hartzea eta laguntzea.

#### *Arazoak*

Lehenik eta behin, adierazi behar da euskal administrazio publikoen maila desberdinetako – autonomikoa, eskualdekoa eta tokikoa – bizikidetzak agerian uzten duela terminologia-aniztasun handia dagoela.

Bigarrenik, jarduera-eremuen eta eskumen-erantzukizunen aniztasunak aztergai den informazioaren sakontasun- eta xehetasun-mailari buruzko ikuspegi desberdinak azaleratzen ditu.

Azkenik, egiaztatu zen erakunde guztiek ez dutela hauteskunde-programaren edo erantzukizun politikoak eskuratzeko unean hartutako konpromisoen dokumentu zehatz eta sakonik. Ildo horretan, udalerrri handi eta garrantzitsuek badituzte dagozkien gobernu-programak edo agintaldiko planak, baina, hala ere, toki-erakunde oso txikietako udalek ez dituzte zehazten legegintzaldi bakoitzean hartutako konpromisoak izaera horretako berariazko dokumentu batean. Era berean, aipatu behar da, toki-administrazioko hauteskunde batzuk egin direla bitarte horretan.

#### *Helburua eta irizpideak bateratzeko beharra*

Aurrez deskribatutako egoerak hainbat bileratan aztertu ziren, informazio-maila handietarako behar adina aukera emango zituen oinarritzko estandar komun bat lortu ahal izateko, baina, bestalde, proiektuan parte hartzen duten erakundeetako edozeinentzat gerora abian jartzeko eta jarraipena egiteko sistema konplexu bat eratu gabe, haien ezaugarriak eta tamaina edozein izanik ere. Era berean, erakunde publikoen eta herritarren artean kontuak elkarlanean emateko euskal eredu bat garatzea pentsatu zen, auditoretza sozialaren praktika osatuago baterantz aurrera egiteko.

Aldi berean, ezarritako azken helburua zen herri-administrazioetan kontuematea erraztea, sustatzea eta finkatzea, gardentasunaren urrats aurreratu gisa, eta, aldi berean, gai publikoen arloan herritarrek parte-hartzaileagoak eta erantzunkideagoak izatea.

## EREDUAREN DEFINIZIOA

### *Printzipioak*

Eredurako ezarri ziren oinarrizko gogoetak honako hauek izan ziren:

1. Sinpletasuna, sistemaren arkitektura ezartzeko funtsezko balio gisa. Printzipio hori bi aldaeratan aplika daiteke:
  - a. Barne-kudeaketa eta ondorengo mantentze-lanak.
  - b. Sartzeko erraztasuna eta herritarrek ulertzea.
2. Terminologia bateratzea.
3. Izaera autogestionagarria eta erakunde bakoitzaren betekizunekiko parametrizagarria.
4. Erakundearen agintaldiko planen garapena eta betetze-maila kudeatzeko eta horien barne-jarraipena egiteko oinarrizko tresna osagarri gisa erabiltzeko aukera.
5. Etorkizunean erakunde eta herrialde mailan datuak konparatzeko azterketa-esparru bat ezartzeko aukera.

### *Informazioaren egitura eta terminologia*

Informazioaren oinarrizko bi maila eta hirugarren maila osagarri bat ezarri dira (ikus I. eranskina):

1. Helburuak:  
Elementu-xede zehatzak, ikusgarriak eta lorgarriak ezartzeari egiten dio erreferentzia.
2. Ekintzak:  
Aurrez ezarritako helburu bakoitza lortzeko aurreikusitako eta *a priori* funtsezkotzat jotako urratsen definizioa da.
3. Ekintzen jarraipena:  
Ekintzak abian jartzeko eta gauzatzeko egiten diren jarduerak deskribatzeari egiten dio erreferentzia.

Erabiltzeko irizpideak:

- "Agintaldiko plana" hartuko da gobernu-programa, hauteskunde-programa edo baliokidea identifikatzeko termino orokor komun gisa.
- Erakunde bakoitzak bere beharretara eta agintaldiko planaren ezaugarrietara egokituko ditu informazio-maila horiek.
- Erakunde bakoitzak bere maiztasun-irizpideak ezarriko ditu argitaratutako informazioa eguneratzeko.

Hiru euskarri-elementu hartu dira:

1. Gaiak:  
Gai generikoen zerrenda bateratua eta mugatua adostu da. Kontua da gehiegizko pertsonalizazioa saihestea, etorkizunean konparaziozko analisiak egitea eragotziko duena (ikus II. eranskina).
2. Eremu geografikoak:  
Aurreikusitako ekintzen kokapen geografikoa ahalbidetzen du. Erakunde bakoitzak bere eremu geografikoan konfiguratu dezakeen parametro gisa ulertzen da, hirigintza- eta administrazio-irizpideak erabili ahal izateko, hala nola barrutiak, auzoak edo tokiko eremu jakinak identifikatzeko toponimoak.
3. Garapen Iraunkorraren Helburuak:  
Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuen (GJH) zerrenda sartu da, aurreikusitako ekintzak dagokien helburuarekin lotu ahal izateko.

Informazio osagarri gisa:

- 1) Adierazleak:  
Ekintza bakoitzaren gauzate- edo bilakaera-maila erakusteko eta ezagutarazteko elementu bat ezartzea ahalbidetzen dute, eta etorkizuneko bilakaeraren estimazioa egin ahal izatea. Hala ere,

adierazle egokiak aukeratzea lan konplexua izan daiteke, eta konplexutasun handiko eta mantentze-lan neketsuko elementua ekar dezake, aurrez ezarritako printzipioen aurka. Hori dela eta, erakunde guztien oinarritzko premiak asetzeko moduko malgutasuna duten bost adierazle-mota aurredefinitzea erabaki da, erakunde horien tamaina edo konplexutasuna edozein dela ere (ikusi III. eranskina). Ekintza bakoitzerako gutxienez adierazle bat erabili behar dela ezarri da, eta administratzailearen esku geratuko da premia zehatzetarako egokiena aukeratzea.

Ekintza batean adierazle bat definitu ondoren, harekin lotuta dauden jarraipen-jardueretatik abiatuta eguneratzen da bere balioa; horrela, hurrengo jardueretan adierazlearen balio maximoa lortu ahal izango da.

2) **Ebidentziak:**

Kontuak emateko euskal ereduak ekintza bakoitzaren jarraipenaren informazioa ebidentziekin osatzeko aukera jasotzen da, hala nola argazkiak, planoak, memoriak, dokumentu teknikoak, etab.

3) **Orri-oina:**

- a) Erakundeari buruzko informazio deskribatzailea: erakundeak Kontuematea proiektuari buruz egokitzat jotzen duen informazioa aurkezteko gure erabilgarria.
- b) Herritarrekiko elkarrekintza: proiektua abian jartzeko lehen fase honetan, *feedback*-a jasotzeko, erakunde bakoitzak egun eskaintzen dituen partaidetza-bideak (herritarrentzako arretazerbitzuak, web-orriak edo sare sozialak) berrerabiltzea erabaki da aldi baterako neurri gisa. Hurrengo fase batean, herritarren auditoria landuagoa eta osatuagoa ezartzeko asmoa dago (ikus *Hurrengo pausoak* atala).

### *Hedatzeko aukerak eta ezaugarriak*

Herri-administrazioetan kontuak emateko praktikan lagundu eta hura errazteko helburuarekin, gardentasunaren urrats aurreratu gisa, proiektuak hurrengo urrats bat ere eman du, datu-eredu adostu honetan oinarritutako web-aplikazio bat garatuz.

Hemen kontsulta daiteke:

<http://kontuematea.irekia.euskadi.eus> (rendicióndecuentas.abiertas.basquecountry).

Aplikazio hori honako ezaugarri hauekin sortu da:

1. **Software librea:**

Europar Batasuneko lizentzia publikoarekin garatua: "[European Union Public Licence – EUPL](#)". Horrela, ezartzeko interesa duen edozein erakundek zuzenean egin ahal izango du bere bitartekoekin.

Hemen deskarga daiteke: [https://www.irekia.euskadi.eus/es/site/page/source\\_code](https://www.irekia.euskadi.eus/es/site/page/source_code)

2. **Multi-site:**

Funtzionalitate horrek aukera ematen du proiektuan parte hartzen duten erakundeak modu independentean batera egoteko, eta beren zentroetan datuak prozesatzeko sistemak ezartzeak dakarren ahalegin tekniko eta ekonomikoa arintzeko.

3. **API:**

API (Application Programming Interface) bat ezarri, software-osagaien arteko komunikazio-gaitasuna duena eta erakunde publiko batzuek lehendik dituzten aplikazio informatikoekin datuak integratzea ahalbidetzen duena, sinergiak bilatzeko.

4. **Widget:**

Arestian adierazitako aukeren arteko tarteko puntu gisa, aplikazioak *widget* bat edo bistaratze-leiho bat eskainiko die parte-hartzaileei, beste webgune batean "txertatu" ahal izateko, *widget*-ak erakunde erabiltzailearen eskura jartzen duen kodea kopiatuta.

## AMAIERAKO GOGOETA

Azken helburua denez Herri Administrazioek herritarrei kontuak emateko printzipioa bultzatzea eta pixkanaka onartzea, datu-eredu partekatua definitzeko akordioa aurrerapauso garrantzitsua da norabide horretan, eta, aldi berean, Gobernu Irekiaren komunitateari egindako ekarpena da. Alde horretatik, ereduaz arazorik gabe har dezake edozein erakunde motak: txikia edo handia, sinplea edo konplexua, erkidegokoa edo estatukoa.

Agintaldiko planen bidez kontuak emateko euskal ereduak zehaztu eta ezarri ondoren, kontuak emateko printzipioaren praktika eraginkorra orokortu nahi da.

### *Eta hemendik aurrera, zer?*

OGP-Euskadiren 2018-2020 Ekintza Planaren denbora-mugatik harago, datu-ereduari eta zabalduko plataformari jarraipena ematea, eta dagoeneko inplikaturik dauden erakundeek proiektuekin duten konpromisoari eustea.

Ikuskaritza soziala mota guztietako enpresa edo erakundeetan egindako ebaluazioa da, beren ekintza edo proiektu sozialek edo etikoek funtzionamenduan eta iraunkortasun ekonomikoan duten eraginari buruzkoa. Proiektuaren bilakaeraren berehalako urrats gisa, horri lotutako eginkizunen eta eskuduntzen definizioa datu-ereduan sartzei ekin behar zaio, arreta berezia jarritz datu pertsonalen pribatutasunarekin eta indarrean dauden Europako gidalerroak errespetatu eta beteko direla bermatzearekin lotutako alderdia ebaztean.

Bestalde, *Kontuematea* kontuak emateko web-ataria irudikatzen duen datu-eredu komuna estandarizatzeko planteamendu hori baliotsua izango da, legegintzaldiaren amaieran lortutako helburuak edo konpromisoak aztertzeko eta herritarren ahalduntzean aurrera egiteko aukera emango duelako. Aldi berean, proiektuan parte hartzen duten erakunde guztiengandik bildutako datuetatik abiatuta konparazioak egin ahal izateko bidea ere irekiko du.

Azkenik, prozesu horrek guztiak eta erreferentziako inplementazioak ereduaren kalitateari buruzko informazioa sortuko du, eta etorkizunean hura hobetzeko erabili ahal izango da.

-----

I. ERANSKINA: EREMUAK ETA EZAUGARRIAK

Fitxak	Eremuaren izena	Nahitaezkoa	Balioa	Oharrak
Agintaldiko Planeko helburuak				Hainbat nabigazio-item nagusia
	Izenburua (x2: elebiduna)	Bai	testu librea	
	Deskribapena (x2: elebiduna)	Bai	testu librea	estiloekin
	Zirriborrea	-	checkbox	
Ekintzak				Hainbat
	Helburuari atxikita	Bai	zabalgarrria	aurretik sartutakoan artean aukeratu
	Izenburua (x2: elebiduna)	Bai	testu librea	
	Deskribapena (x2: elebiduna)	Bai	testu librea	estiloekin
	Aurreikusitako hasiera-data	Bai	uuuu/hh/ee	formatu eleaniztuna
	Benetako hasiera-data	-	uuuu/hh/ee	formatu eleaniztuna
	Aurreikusitako amaiera-data	-	uuuu/hh/ee	formatu eleaniztuna
	Benetako amaiera-data	-	uuuu/hh/ee	formatu eleaniztuna
	Aurrekontua	-	zenbakizkoa	moneta-formatua
	Gai sektorialak	Bai	checkbox	zerrenda itxia (40 aukera) hautapen anizkoitza nabigazio-item nagusia
	Eremu geografikoak	Bai	checkbox	zerrenda autokonfiguragarria (ikus 1. oharra) hautapen anizkoitza nabigazio-item nagusia
	Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH)	-	checkbox	zerrenda itxia (17 aukera) hautapen anizkoitza nabigazio-item nagusia
	Zirriborrea	-	checkbox	
Adierazleak eta atributuak	Izena (x2: elebiduna)	Bai	testu librea	Zabalgarrria / hainbat
	Mota	Bai	zabalgarrria	zerrenda itxia (5 aukera: ehunekoak, zenbakizkoa eta faseko 3, ikus III. eranskina)
	Metrikaren literala (x2: elebiduna)	-	testu librea	"Zenbakizko" motari bakarrik lotuak, definizio librekoak
	Balio objektiboa	-	zenbakizkoa	

Fitxak	Eremuaren izena	Beharra	Balioa	Oharrak
Jarduerak (ekintzen jarraipena)				Hainbat nabigazio-item nagusia
	Ekintzara atxikitzea	Bai	zabalgarría	aurretik sartutakoan artean aukeratu
	Izenburua (x2: elebiduna)	Bai	testu librea	
	Deskribapena (x2: elebiduna)	Bai	testu librea	estiloekin
	Data	Bai	uuuu/hh/ee	formatu eleaniztuna
Konfigurazioa				administratziotik bakarrik
	izen ofiziala (x2: elebiduna)	Bai	testu librea	
	Logoa	-	irudia	
	Orri-oineko testua (x2: elebiduna)	-	testu librea	estiloekin
	Koloreak (txantiloak hautatzea)	Bai	radio button	
<i>Zerbitzu propioetarako estekak:</i>	Zerbitzuaren izena (x2: elebiduna)	-	testu librea	hainbat
	Web-esteka (x2: elebiduna)	-	URLa	
<i>Eremu geografikoak (1)</i>	Izena (x2: elebiduna)	-	testu librea	hainbat parametrizagarria, nahieran
	Deskribapena (x2: elebiduna)	-	testu librea	
Erabiltzailea				administratziotik bakarrik
	Izena	Bai	testu librea	
	Posta elektronikoa	Bai	emaila	
	Pasahitza	Bai	testu librea	Posta bidez berreskuratzeko / aldatzeko aukera

(Oharra: informazio osagarria dago software librearen bertsioaren dokumentazio teknikoan.  
Hemen eskuragarri: [https://www.irekia.euskadi.eus/eu/site/page/source\\_code](https://www.irekia.euskadi.eus/eu/site/page/source_code)


## II. ERANSKINA: GAIAK

---

Adinekoak	Hiri-birgaitzea eta -berroneratzea
Araugintza-jarduera	Hiri-plangintza
Balioak	Industria
Berdintasuna	Ingurumena
Bizikidetza	Jaiak
Dibertsitate funtzionala / Irisgarritasuna	Kirola
Enplegua eta talentua	Kontsumoa
Eskumen-sistema	Kudeaketa aurreratua
Espazio publikoa	Kultura eta aisia
Etxebizitza	Lehen sektorea/landa-garapena
Euskara	Obrak eta azpiegiturak
Familia	Oinarrizko zerbitzuak
Garapen ekonomikoa	Osasuna
Garapenerako lankidetza	Segurtasuna eta bizikidetza
Gazteria	Tokiko merkataritza
Giza eskubideak	Trafikoa eta mugikortasuna
Gizarte-ekintza	Turismoa
Haurrak eta adingabeak	Zerga-sistema
Herritarren parte-hartzea eta gobernu irekia	Zientzia eta teknologia
Herritarrentzako arreta	
Hezkuntza	

## II.ERANSKINA: ADIERAZLEAK

### 1. Ehunekoaren adierazlea



### 2. Zenbakizko adierazlea



### 3. Hasi gabe, prozesuan, amaituta



### 4. Zirriborroa, kontsulta eta informazioa, onarpena





5. Proiektua eta pleguak, lizitazioa, exekuzioa, amaituta

